



INIGO AZKONA

Jendetza Bilboko Santiago katedralaren inaugurazioan. Zaharberritutako Bilboko Santiago katedrala inauguratzeko mezak jende ugari bildu zuen atzo arratsaldean. Ricardo Blazquez Bilboko gotzaina buru, hamabost prelatuk parte hartu zuten mezan; besteak beste, Juan Mari Uriarte Donostiako gotzainak, Jose Maria Setien Donostiako gotzain ohiak eta Miguel Asurmendi Gasteizko gotzainak. Hiru urte iraun du berritzeak, eta 620 milioi pezeta erabili dituzte.

Ziburuko kolegioak egoitza berri bati buruz lanean jarraitzen du

Sagarno Eguna antolatu dute larunbatean dirua biltzeko

Eneko Bidegain / Ziburu

Ziburuko Piarres Larzabal kolegioak sagarno eguna antolatuko du heldu den larunbatean. Ikastolarentzat diru biltzea da besta horren helburua. Egoitza berri bati buruz lanean jarraitzen dute. Heldu den astean bilkura bat badute gai horretaz mintzatzeko, kolegioetako herrien arteko sindikatuko lehendakariarekin.

SAGARNO besta iraganen da Ziburuko plazan heldu den larunbatean, arratsaldeko 18:00etatik goiti. Bertsolariak, trikitilariak eta mutxikoak alaituko dute arratsaldea. Gauean, Ekintza, Berri Beltzak eta Dementia taldeek kontzertua eskainiko dute. Irabazi dirua Ziburuko Piarres Larzabal kolegioari joanen zaio.

Ziburuko kolegioa urtero hazi da, 1998an ireki zenetik. 160 ikasle zituen azken ikasturtean (75 baizik ez lehen ur-

tean). Urtero handitze lanak egin behar izan dituzte. Horrek gastu handiak sortu ditu. Aurtengo udan ere egoitza antolatzen ari dira, gelak txikiak direlako. Besteak beste jateko tokia lekuz aldatzen dute.

Xantakon eraiki nahi

Egoitza berri baten bilaketek aitzina jarraitzen dute. Donibane-Lohizuneko Xantako auzoa begiztatua dute. Eremu zabal hartan kirolerako azpiegiturak hurbil lituzkete ikas-

leek. Ziburuko kolegioko ikasleek urrun joan behar dute kirola egitera. Azkaineraino joaten dira pilotan jokatzera. Herriko Etxeak igerileku baten eraikitzeko xedea du.

Michele Alliot-Marie Donibane-Lohizuneko auzapezak Seaskari jakinarazi dio kolegioari buruzko dosierra Patricia Arribas kolegioetako herrien arteko sindikatuaren ordezkariaren eskuetan ezarri duela. Heldu den astean bilduko dira Mixel Etxeberri Seaskako lehendakaria eta Arribas.

Kolegioak lekuz aldatu beharko du urte baten buruko. Heldu den urtean ez dute tokirik izanen haur guztientzat (185 ikasle iragartzen dituzte). 2003-2004 ikasturtean 250 ikasle aterpetuko lituzke kolegioak.

l a b u r r e a n

■ Lagun bat hil eta hemeretzi zauritu dira hamar errepede istripuren ondorioz

KAMIOI gidari bat hil zen atzo eguerdian eta beste hemeretzi lagun zauritu ziren errepedeetan jazotako hamar istripuren eraginez. V.R.J. 18 urtekoa Laudion zela, Karmengo Andre Mariaren kalean, gidatzen zuen Ebro kamioiaren eta atoian zeraman Iveco furgonetaren artera joan zen. Kamioia bakarrik mugitzen hasi zen, eta bi ibilgailuen artean harrapatuta gelditu zen biktima. Galdakaoko ospitalean zendu zen. Herenegun goizaldean, berriz, J.M.I.S. 38 urteko Larragako gizona (Nafarroa) zendu zen Miranda de Argan —NA-6140 errepedean—, gidatzen zuen autoa errepedetik irten ostean.

■ Urtean hilekoa lau alditara murrizten duen antisorgailu bat patentatu du EEBB-eko unibertsitate batek

EMAKUMEEK hilekoa urtean hamahiru aldiz izan ordez lau-tara murrizten duen antisorgailu bat patentatu du Ekialdeko Virginiako (EEBB) Unibertsitateko Medikuntza Fakultateak. Pilula bat da, eta *Seasonal* izenarekin patentatu du. Lau alditan hartu behar da, 84 egunetan jarraian, eta zazpi eguneko atsedena egin. Urtean soilik 28 egunetan izango da ugalkor antisorgailua hartzen duen emakumea; orain arteko pilulak, berriz, hogeita bat egunetan hartu behar dira eta urtean ia 90 egunetan dira ugalkor hartzen dituztenak.

■ Castejongo zentral termikoen lehen harria irailean jarriko dutela iragarri du Miguel Sanz Nafarroako lehendakariak

MIGUEL SANZ Nafarroako lehendakariak atzo esan zuenez, irailean hasiko dira Castejongo zentral termikoak eraikitze-lanak. Talde ekologistek aurkako jarrera erakutsi duten arren, zentralak Espainiako Gobernuaren, Nafarroakoaren eta Castejongo Udalaren oniritzia dutela adierazi zuen. Logroño eta Iruñea bitarteko autobia egiten, berriz, datorren urtean hasiko direla iragarri zuen Sanzek. Bestetik, Lodosa-ko zigor-gela egiteko leku egokiena aukeratu dutela nabarmendu zuen, Errioxako zenbait erakunde eta elkarteek aurkeztutako helegiteei erantzuteko. Lekua Alcanadreko hondakin industrialen depositotik gertu dagoela salatu zuten. Helegiteak aztertuko dituela esan du lehendakariak.

■ Ebro ibaira 15.000 litro gasolio isuri dituztela salatu dute Logroño-ko Udaleko talde errioxarrak, PSOE-ek eta IU-ek

LARUNBATEAN Ebro ibaira 15.000 litro gasolio isuri zituztela salatu zuten atzo Logroño-ko Udaleko talde errioxarrak, sozialistak eta Izquierda Unidak. Biasterin dagoen Ramondin enpresak —botiletarako kapsulak egiten nagusi da munduan— isuri zuen gasolioa, IU taldearen arabera. Enpresa dagoen industrialdeko araztegia hondatuta dagoela esan zuen. Oposizioko taldeek PPren gobernu taldeari eskatu diote beharrezko neurriak har ditzala isuritakoa garbitzeko, eta salaketa jartzeko Eusko Jaurlaritzari, Ebroko Konfederazio Hidrografikoari eta Ramondin enpresari.

■ Jaizkibel mendian erori den arrantzale bat erreskatatu du Ertzaintzaren helikoptero batek

L.G.U. Lezoko 49 urteko arrantzalea erreskatatu zuen atzo Ertzaintzaren helikoptero batek Jaizkibel mendian (Hondarribia), oinezko batek ohartarazi ondoren. Biktima itsas aldean ari zen arrantzan arroka artera erori zenean. Bidasako Ospitalera eraman zuten, saihesta batzuk hautsita eta kolpe ugari zituelako.

Egunkaria
IRAGARKIAK
IRAGARKIAK
IRAGARKIAK
943
300 222

AZPEITIKO UDALA
IRAGARKIA
Udalbatzak 2000ko uztailaren 5ean egindako bilkuran, legezko kopuruaren gehiengo absolutorekin, ondorengo akordioa hartu zuen, Azpeitiko Herriko Planeamenduaren Arau Osagarrien "Larre" 87. H.E.A.-rako aldakuntza puntualaren espedienteari eta Proiektuari hasierako onarpena ematea.
Horrenbestez, ekainaren 23ko 2.159/1978 ED-k, Planeamenduaren Erregelamenduari buruzkoak, 128. artikuluan xedatutakoaren arabera, jendaurreko erakustaldian jarriko dira aipatutako aldakuntza espediente eta proiektua, Azpeitiko Udaleko Idazkaritzan, hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Azpeitiko Ediktu taulan eta El Diario Vasco, Deia, Egunkaria eta Gara egunkarietan argitaratu, hots, argitalpen honetan azkena egin eta biharamunetik hasita.
Aipatutako epean aztertu eta egoki erizitako erreklamazio eta alegazioak aurkeztu ahal izango dira, Azpeitiko Alkate-Lehendakariari zuzenduta Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztu beharko direlarik.
Halaber, jakin arazi nahi da hasierako onarpen akordioaren indarrez, "Larre" 87. H.E.A.-rako lizentziak ematea eten dela.
Azpeitian, 2000ko uztailaren 20an. Alkateak.

AZPEITIKO UDALA
IRAGARKIA
Udalbatzak 2000ko uztailaren 5ean egindako bilkuran, legezko kopuruaren gehiengo absolutorekin, ondorengo akordioa hartu zuen, Azpeitiko Herriko Planeamenduaren Arau Osagarrien "Igaralde" 72 H.E.A.-rako eta "Olalde" 73 H.E.A.-rako aldakuntza puntualaren espedienteari eta Proiektuari hasierako onarpena ematea.
Horrenbestez, ekainaren 23ko 2.159/1978 ED-k, Planeamenduaren Erregelamenduari buruzkoak, 128. artikuluan xedatutakoaren arabera, jendaurreko erakustaldian jarriko dira aipatutako aldakuntza espediente eta proiektua, Azpeitiko Udaleko Idazkaritzan, hilabeteko epean, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Azpeitiko Ediktu taulan eta El Diario Vasco, Deia, Egunkaria eta Gara egunkarietan argitaratu, hots, argitalpen honetan azkena egin eta biharamunetik hasita.
Aipatutako epean aztertu eta egoki erizitako erreklamazio eta alegazioak aurkeztu ahal izango dira, Azpeitiko Alkate-Lehendakariari zuzenduta Udaleko Sarrera Erregistroan aurkeztu beharko direlarik.
Azpeitian, 2000ko uztailaren 20an. Alkateak.